

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**596/2024 Foru Agindua, azaroaren 27koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio orokorreko eskalako menpekoen azpieskalan (lanbide taldea) karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari baitagokio (2022ko EPEa)**

Abenduaren 19ko 593/2022 Foru aginduaren bidez, onespena eman zitzaizen Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion prozesu bereziak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Urriaren 29ko 463/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionario izendatu ziren administrazio orokorreko eskalako menpekoen azpieskalan (lanbide taldea) karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian. Deialdi hori Arabako Foru Aldundiaren iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari dagokio (2022ko EPE).

Azaroaren 7ko 505/2024 Foru Aginduaren bidez, karrerako funtzionario izendatutako pertsonetako baten borondatezko eszedentzia deklaritzen da.

Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorreko karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezia arautzen duten 2022ko lan-eskaintzako oinarri orokorretan (11.3. C) aurreikusitakoaren arabera, epaimahai kalifikatzaileak proposamen gehigarria egin du prozesua gainditu duen izangaia izendatzeko. Beraz, karrerako funtzionario izendatu behar da eskala honetan administrazio orokorreko eskalako menpekoen azpieskalan (lanbide taldea).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea, administrazio orokorreko eskalako menpekoen azpieskalan (lanbide taldea) sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bereziari baitagokio (2022ko EPEa), hura gainditu duten izangaia, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
MARIA JESÚS VALLENILLA SERRANO	Zerbitzu Orokoretako mandataria	1500.007

Bigarrena. Izendatutako pertsonak 2024ko abenduaren 9an jabetu beharko dute esleitutako lanpostuez.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak adjudikatutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik –Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 27a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR